

II. BBK ERREPORTAIA LEHIAKETA

Berlin, harresi bako Europarantz

HARRESI BARIK. Europa barri, gazte eta batuagoko uriburu da Alemaniakoa. Berlingo kaleetan zehar, gerra hotzaren mamuaz ganera, azken 150 urteetan Europako nazio borrokalariarena izan danaren orban eta giharrak proba geinkez

3 62 metrodu Fernsehturm, telebistaren dorre erraldoitik, Alemania batuen uriburuko 889 kilometro koadroetan gehienak ikusi leikez. Baina Berlingo kaleetan zehar, gerra hotzaren mamuaz ganera, azken 150 urteetan Europako nazio borrokalariarena izan danaren orban eta giharrak proba geinkez.

Uriaren atal handiena Ekialdekoa zan. Izan be, ekialdeko kutsu agerikoa dauko oraindino be Berlinek. Karl Marx etorbidean behera, Friedrichschain auzoan, gura beste kilometro egin geinkez Riga, Varsovia edo Moskun ete gabilzen arrasto barik. Ekialdearen erdigune zan Alexanderplatz grisean haizeak hotz jotzen dau. Handik hurre, lorategi baten ahaztu dabez Marx eta Engelsen irudi astun eta sendoak. Ekialderago, Ostbahnhof geltoki barritzatutik Mühlenstrasse kalean behera topetan dogu oraindino zutik dauan Harresiaren atal handiena, kilometro pasatxo daukona eta Spree ibaiaren baztarrean dauana.

Harresi bat harantzago

Unter den Linden etorbide zabalean behera, Katedral dotorearen alboan ikusgai dagoz neoklasiko estiloko gura beste eraikin: derrigor ikusi beharreko Pergamoko Museoa, Galeria Nazionalea, Alemaniako Historia Museoa, Humboldt Unibertsitatea edota hainbat herrialderen enbaxada barritzatuak. Germaniarren handitasunaren erakusgarri diranak baina, aldi berean, Mundu Gerra biren balen arrastoak ezabatu barik dabezan eraikuntza handiak.

Europako kale garestiena bihurtzeko bidean ei dagoen Friedrichstrasse geroko itxiz, Brandenburgeko Ate barritzatua zeharkatu eta arin begitانتzen dogu parlamentua, lehen Reichstag, gaur Bundestag famatua. Hitlerrek erre, Aliatuek birrindu baina Dem Deutsche Volke harro aldarrikatzen dauan beirazko kupuladun eraikina. Inguruetan, garabiak eta beharrak nonon topetan doguz: etorkizunera itxultzen ari dan uria dogu Berlin.



JOSEBA BARANDIARAN

Checkpoint Charlie museoa Berlin bitan zatitu zuen hormaren hainbat oroigarri ikus daitezke

Bundestagetik hurre, arkitektura sobietarraren adierazgarri, Berlinen askapenean hildako hoge mila soldadu sobietarren oroitarria. Tankeez hornitua, uriaren label ekologikoa baies ten dauan Tiergarten parke erraldoiaren sarreran dago. Aurrerago joanda dago nazioa batzen asmatu eban Bismarcken oroitarria. Alboko Siegestsäule 67 metroko dorreak, Frantziari Prusiaren garaipenak oroituz, Parisa begitzen dau..

Uria tranbia, metro, tren eta autobusek azosita egonagaitik, bizikleta da nagusi, hamaika kafetegiren ate inguruek baisten daben legez. Baztar guztiak Kebab janari turkiarraren saltzaillekaz beteta daukozan uri hau merkea da; karuena garraioa dauko, 3-4 marko bidaiako. Halanbe, Europa mendebaleko uriburuetan dagoan presarik, bozina zaratarik eta gorbatarik apenas ikusten dan 3 milioi eta erdi biztanleko urian. Hainbat azoka txiker be badagoz, saltxitxak, ardu bera edo oparitxoak gura dabezanentzat.

Ezer bada, kontrasteen uria

da Berlin. Londreseko Harrodesen ostean munduko bigarren biltegi handiena dan KaDeWe dotore bezain karuko atetik urten, eta 1.895ean Gillermo Kaiserrak eraikitako eliza topetan dogu, Aliatuen bonbaketak 1.943an itxi eban egoe ra tamalgarrian berean.

Gerra Hotzaren eta ondorengo nahaspilaren sinbolo bizia ere bada Berlin: kapitalismoaren gotorleku dan Charlottenburg auzo pijo eta aspergarria, gaurko mestizaia islatzen dauan Mitte eta giro alternatibo eta gaztea batzen dauan ekialdeko Friedrichshain.

Antzinera bidaia

Berlini jagokanez, denporan bidaiatu geinke gura izanez gero. XVIII. mendera sartu-urtena egin gura dabenak Nikolaiviertel plazan pasiatuz egin leike. Prusiar Inperio garaiko jauregi eta gazteluak ezagutzeko, ezin konta ahala estatu eta irudi, tren ekialderantz hartu eta Potsdam bisitatu leike: dozenaka jauregi daukoz, pago eta haritz arteko lautadan barreiatu rik.

Ikusgarriena Sanssouci, Prusianko Federiko Handiaren egoitza eta gaurko unibertsitatearen kanpua. Eta inok nazismoaren mamua bizirik dauan sentitu gura badau, Oranienburgerstrasse kaleko sinagoga eta be rau eguneko 24 orduz jagoten dauan poliziaren tanketa bisite tan joan leike.

Baina Europa barri, aske eta askotarikoa ezagutzeko, Tor, Oranienburger eta Rosa Luxemburg kaleen arteko dozenaka jabetxetan afaldu eta gaugiroko tabernetan ibiltea halakorik ez dauko. Etorkizunera bueltan datorren uri gazte zaharbarritua iraganean bisitetako aukerak agortu aurretik, Berlin begirean daukozu.

Honetan gitxiri emon jakona eman jaku guri; zugutzen sustraiak ikutu doguz, sustraiok sustrai bizi diren artean, hau da, gu geu lurpega-menpekotasu na.

IZENA: JOSEBA BARANDIARAN

30 urte

Ekonomilaria

LEGAZPIA

NON ZER

ZER BISITATU

Gida guztietan dagoz Pergamoko Museoa, Checkpoint Charlie (Harresiaren garaiari buruzko museoa), Potsdameko jauregiak, Reichstag, Gillermo Kaiserraren eliza, Brandenburger ate, Pariser Platz eta Tiergarten.

Tacheles, Oranienburgerstrasse 54-56. Etxe okupa ohia, orain kulturune erraldoi bihurtu dabena, zinema, antzoki, erakusgela, eskulan azoka eta guzti.

NON LO EGIN

Gida guztietan dagoz hotelak, apiriletik urrira Am Krossinsee kanpinga-urien hegoaldean (Tel: 67.58.687) edo Backpacker aterpetxea (Chausseestrasse 102, Tel:25.15.202, gaba 53 eurotan).

Volksbühne antzokiaren parean bada beste aterpetxe bat, Rosa Luxemburgstrassen, gaba 40 eurotan).

GAUGIROA

Zosch, Tucholskystr. 30. Kontzertua egu netan. Merkea, jendetsua eta atsegina.

Acud, Veteranstr.21. Asteburuetan zuzeneko emonaldia.

Schoko-Laden, Ackerstr.169-170. Kontzertu ugari, punk ukitu bategaz.

WMF, Ziegelstr.22-23. Domeka eta astelehenetan gay eguna.

Freitagsbar, Mulackstrasse. Barikuetan. Zarratutako etxe baten sotoan.